14 URTETIK AURRERA



HEARTSTOPPER
4. ESAN GABE DOA

Gidoia eta irudiak: **Alice Oseman**
Itzulpena: **Naroa Zubillaga**

Astiberri Ediciones. Bilbo, 2025
Zuri-beltza. Paper-azala
384 orrialde. 15,3 x 23,4 cm. 17 euro
Txikiberri bilduma
ISBN: 978-84-10332-65-2

ABENDUAREN 4TIK AURRERA SALGAI

Laugarren liburu hau **iluna** da, baina **ausardiaz** eta **itxaropenez** betea, eta, honetan ere, arreta handiz deskribatzen zaigu **nerabezaroa.** Horixe nabarmendu zuen liburu honetaz Pere Solà Gimferrer-ek, *La Vanguardia* egunkariko kazetariak

Intentsitate berri bat

Charliek ez zuen inoiz pentsatuko Nick erakarriko zuenik, baina orain bikote dira, eta modu ofizialean, gainera. Baina, ez hori bakarrik, uste du prest dagoela hainbesteko larridura sorrarazten dioten bi hitz horiek esateko: "maite zaitut". Nickek ere gauza bera sentitzen du, baina baditu beste hainbat pentsamendu buruan bueltaka: aitari mutil-lagun bat duela esan nahi dio, baina, horretaz gain, Charliek elikadura nahasmendu bat duela uste du. Ikasturte berri bat hasiko dute, baina, era berean, garai berri bat izango da Nick eta Charlierentzat.

Heartstopper serieko laugarren liburu honek intentsitate berri bat ekarriko digu. Egile britainiarrak sortu dituen pertsonaiak oso errealak dira, eta, orain, garrantzi handiko oztopo batekin egingo dute topo: Charlieren buruko osasuna oso ahul dago. Nick ere ohartu da horretaz eta Charlierekin batera heldu nahi dio kontuari. Ordea, 16 urteko mutil batek ezin diezaioke horrelako kontu bati bakar-bakarrik aurre egin; ikusi beharko du zer egin dezakeen hondoratzen eta bakartzen ari denari laguntzeko. Liburu honen ia 400 orrialdeak orain arteko liburuak bezain goxoak eta hunkigarriak dira, eta bihotza estututa irakurtzen dira. Komiki-seriearen azken aurreko alea, bosgarrena, 2026ko erdietan egongo da eskuragarri. Urte horretan amaituko da jatorrizko komiki-seriea, egileak azken alea argitaratuko baitu Hachette UK argitaletxean, seigarrena, alegia, eta, aldi berean, Netflix-en estreinatuko da egileak berak idatzi eta ekoitzitako film luzea.

"Alice Oseman-ek sekulako sentiberatasunez itzularazten zaitu nerabezarora!".

Pere Solà Gimferrer, *La Vanguardia*

ALICE OSEMAN (Kent, Ingalaterra, 1994) komikigile saritua da, idazlea, ilustratzailea eta gidoilaria. Bera da *Heartstopper* komiki-sailaren sortzailea. Sei alek osatzen dute saila, bertan LGBTQI+ giroko erromantzeak lantzen dira irakurle nerabeentzat, eta dagoeneko hamar milioi kopia baino gehiago saldu dira munduan eta 39 hizkuntzatara itzuli dituzte. Oseman bera aritu da Netflixentzat egindako ikusentzunezko egokitzapenaren gidoilari eta ekoizle. Osemanen liburuek hainbat sari irabazi dituzte edo hainbat saritarako aukeratu eta izendatu dituzte, besteak beste, YA Book Prize, Inky Awards, Carnegie Medal eta Goodreads Choice Awards sarietarako. Euskaraz, *Heartstopper*-en lehen lau liburuak 2024an eta 2025ean argitaratu ditu Astiberrik. Azken biak, bosgarrena eta seigarrena, 2026an argitaratzea aurreikusten da.

Heartstopper
1. Bi mutilen enkontrua
288 orrialde. 17 euro
ISBN: 978-84-10332-08-9

Heartstopper
2. Zu etxerako!
320 orrialde. 17 euro
ISBN: 978-84-10332-09-6



Heartstopper
3. Urrats handi bat
384 orrialde. 17 euro
ISBN: 978-84-10332-63-8

Bakarrik ari zinen hizketan!
Bai, zera!!
Bai, bai!! Entzun zaitugu!
ESERI
Hor ari zinen:
ooOoooooo, Nick, zenbat maite zaitudaaaan.
Kitto. Kili-kili erasoa.
AAAAA. EEEEEE?

AJAJAAAA AJAJAA
Anaia zaharra zirikatzeagatik, kakanarru!
AJAJAJA AAAJAJA
Maite duzula esan nahi diozu Nicki?
Ee
bai.